Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**ERABAKIA, 2016ko URRIAREN 25ekoa, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, KARRERAKO FUNTZIONARIO EDO LAN KONTRATUDUN FINKOAK DIREN ETA 2017an 60 ETA 64 URTE BITARTEAN DAUZKATEN IRAKASLE-IKERTZAILEEK BORONDATEZKO ERRETIRO PIZGARRIDUNA ESKATZEKO PROZEDURA EZARTZEKOA.**

2015eko azaroaren 27an unibertsitateko administrazioak eta UPV/EHUn ordezkaritza duten sindikatuek akordioa sinatu zuten, horretarako eratutako batzorde teknikoan, UPV/EHUko erretiroen eta erretiro egoerara iragateko bestelako neurrien inguruan.

Akordio hori UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2015eko abenduaren 17ko bileran.

2015eko azaroaren 27ko seigarren puntuan, irakasle-ikertzaile funtzionario eta lan kontratudun finkoen borondatezko erretiro pizgarriduna eskatzeko aukera jasotzen da 60 eta 64 urte bitartean daukatenentzat, eta kalte ordain batzuk ere zehazten dira, honenbeste hiletako ordainsarien parekoak, erretiroa hartzeagatik.

Hori dela eta, orain deialdia egin behar da aukera honen berri ahalik eta gehien zabaltzeko eta, era berean, arautu egin behar dira akordioa gauzatzeko baldintzak, betebeharrak eta epeak.

Beraz, erabaki honen bidez prozedura ezartzen dut karrerako funtzionario edo lan kontratudun finkoak diren eta 2017an 60 eta 64 urte bitartean dauzkaten irakasle-ikertzaileek borondatezko erretiro pizgarriduna eskatzeko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakiak eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2013ko otsailaren 13ko EHAA).

**LEHENA.- Helburua.**

Erabaki honen helburua da borondatezko erretiro pizgarridunerako deialdia egitea, eta haren betebeharrak, baldintzak eta epeak arautzea.

Nik, Jose Luis Martín González jaunak, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin.
Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2. zuzk.) izenpetua, 2013ko urtarrilaren 10eko erabakiaren bidez izenpea eskuordetuta.
Leioa, 2016 (e)ko urri (a)ren 25 a

Jose Luis Martín González, Secretario General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original.
Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de 10 de enero de 2013, la jefe de Negociado de Secretaría General (dot. 2)
Leioa, 25 de octubre de 2016

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**Bigarrena.- Deialdia nori dagokion**

Erabaki honetako neurriak eskatzeko, ezaugarri hauek eduki behar dira: irakasle-ikertzailea izatea eta karrerako funtzionarioa edo lan kontratudun finkoa, eta 2017an 60 urtetik 64 urtera bitarteko adina izatea.

**Hirugarrena.- Baldintzak**

Deialdi honetan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira erretiroko eskariak ondorioak izango dituen egunean:

a) Karrerako funtzionarioa izatea unibertsitateko irakasleen kidegoetako batean edo lan kontratudun finkoa izatea irakasle kategoriaren batean.

b) UPV/EHUn plaza bat betetzen egotea behin betiko edo behin-behineko atxikipenaz.

c) Zerbitzu aktiboko administrazio egoeran egotea edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozeinetan.

d) 60 urte eta 64 urte bitartean izatea.

e) UPV/EHUko erretiroen eta erretiro egoerara iragateko bestelako neurrien arloko batzorde teknikoaren 2015eko uztailaren 24ko Akordioaren 7. atalean jasotako irakaslanaren murrizpenik eduki ez izana, hori traba ez dela akordioaren lehenengo xedapen iragankorra aplikatzeko.

f) Interesatua borondatezko erretiroa eskatzeko egoeran egotea, legean ezarritako baldintzak betetzen dituelako.

**Laugarrena.- Kalte ordaina**

1.- Erabaki honetako neurriak eskatzen dituzten irakasle-ikertzaileek, UPV/EHUren zerbitzuan egon badira azken hamar urteotan gutxienez (zerbitzu aktiboan edo plaza gordetzea dakarren

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

beste egoera administratiboren batean), eskubidea izango dute kalte ordaina jasotzeko erretiroa hartzen duten unean, eskala honen arabera:

| **Adina** | **Hileko ordainsari kopurua** |
|---|---|
| 60 urte | 18 ordainsari |
| 61 urte | 15 ordainsari |
| 62 urte | 12 ordainsari |
| 63 urte | 8 ordainsari |
| 64 urte | 4 ordainsari |

2.- Erabaki honetako neurriak eskatzen dituzten irakasle-ikertzaileek, UPV/EHUren zerbitzuan egon ez badira azken hamar urteotan gutxienez (zerbitzu aktiboan edo plaza gordetzea dakarren beste egoera administratiboren batean), eskubidea izango dute kalte ordaina jasotzeko erretiroa hartzen duten unean, eskala honen arabera.

| **Adina** | **Hileko ordainsari kopurua** |
|---|---|
| 60 urte | 13 ordainsari |
| 61 urte | 11 ordainsari |
| 62 urte | 9 ordainsari |
| 63 urte | 7 ordainsari |
| 64 urte | 4 ordainsari |

3.- Kalte ordainaren zenbatekoa ezin izango da izan, inola ere, 100.000 eurotik gorakoa.

4.- Karrerako funtzionarioari edo lan kontratudun finkoari dagokion hileko ordainsarien kopurua zehazteko, begiratuko da zenbat urte dauzkan erretiroa hartzen duen unean.

Hala ere, ezinezkoa bada funtzionarioak edo lan kontratudunak borondatezko erretiroa hartzea ondorioak sortzeko eskatu duen datan —deialdi honetako epeengatik eta estatuko funtzionario

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

zibilen araubide berezian dauden funtzionarioen kasuan tramiteak hiru hilabete lehenago hasi behar direlako, edo administrazioaren ustez erretiroa beste data batean hartzea egokiagoa delako irakaslanaren lauhilekoen antolaketagatik— eta langileak urtebete gehiago egin behar badu lanean, kalte ordaina ordainduko zaio erretiroa hartu nahi zuen datan zeukan adinaren arabera.

5.- Hileko ordainsaritzat hartuko da borondatezko erretiroa eskatzean edozein kontzeptugatik urteko ordainsari gordinaren hamabirenari dagokion kopurua (alde batera utzita kargu akademikoetan jarduteagatiko osagarria eta proiektuetan parte hartzeagatik edo masterretan eskolak emateagatik edo bestelako kontzeptuengatik jasotakoak).

6.- Lotutako lanpostua daukaten funtzionarioen hileko ordainsaria.

Kasu horretan hileko ordainsaria zehaztean ez dira kontuan hartuko Osakidetzako Langileen Lan Baldintzak Arautzen Dituen Akordioan ezarritako ordainsariak, hilabetero Osakidetzak UPV/EHUri transferitzen dizkionak, UPV/EHUren eta Osakidetzaren arteko Hitzarmenaren hamaseigarren oinarria betez.

7.- Kalte ordain osoa zati bakarrean ordainduko da. Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean dauden funtzionarioek eta lan kontratudunek aurkeztu beharko dute erretiroa eta haren ondorioen data adierazten dituen GSINen erabakia.

Hala ere, interesatuak hala eskatuz gero, kalte ordaina bi zati berdinetan ordainduko da. Bigarren zatia, edozelan ere, hurrengo ekitaldian ordainduko da.

**Bosgarrena.- Eskariak aurkezteko epea**

1.- Eskariak aurkezteko epea **2016ko urriaren 25etik azaroaren 25era bitartekoa** izango da.

2.- Deialdi honetara aurkezten diren irakasle-ikertzaileek konpromisoa hartzen dute eskariak aurkezteko epea behin amaituta, eskarian atzera ez egiteko.

Konpromiso hau betetzen ez dutenei ez zaie utziko erretiro pizgarridunen beste deialdi batera aurkezten.

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**Seigarrena.- Eskariak**

1.- Eskariak Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordeari zuzenduko zaizkio eta erabaki honi erantsitako ereduaren arabera egin beharko dira. UPV/EHUko erregistro orokorretan aurkeztuko dira edo, bestela, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan eta azken xedapenetako zazpigarrenean ezarritako bidea erabilita (Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen Legea, urriaren 1ekoa). UPV/EHUko erregistro bulegoen zerrenda UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakiaren I. eranskinean dago jasota (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorraren antolaketa eta funtzionamendurako eta erregistro elektronikoa sortzeko Arautegia, 2012ko ekainaren 18ko EHAA). Era berean, Interneteko helbide honetan ere ikus daiteke: www.ehu.es/oficinas_registro.html

2.- UPV/EHUko Erregistro Orokorrak dira: Leioako Campuseko Errektoregokoa; Bilboko Larrako Etxekoa; Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzakoa (Ignacio Barriola eraikina, Elhuyar plaza, 1 – Donostia); eta Arabako Campuseko Errektoreordetzakoa (Izardui komandantearen kalea, 2 – Gasteiz).

3.- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako erregistro orokorrak irekita daude astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 13:00etara, goizez, eta 15:00etatik 16:30era, arratsaldez. Ostiraletan eta udako lanaldi jarraituan eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandetan, 9:00etatik 13:00etara artekoa da.

4.- Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikuluak xedatutako moduan aurkeztu behar dute. 1829/1999 Errege Dekretuak posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

*Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.*

IDAZKARITZA NAGUSIA
SECRETARÍA GENERAL
eman ta zabal zazu
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

*Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.*

*Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en su normativa de desarrollo.*

**Zazpigarrena.- Eskarien ebazpena**

1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu ostean, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak erabaki bat emango du onartutako eta baztertutako eskarien zerrendarekin, eta horren berri emango zaie interesatuei.

Erabakian erretiroaren data zehaztuko da. Data hori interesatuak eskatutakoa izango da, non eta administrazioak ez duen beste dataren bat ezarri, komenigarriagoa iruditu zaiolako lauhilekoen antolaketarako edo deialdi hau ebazteko epeak betetzeko.

2.- Eskaria onartu zaien irakasle-ikertzaileek kasuan kasuko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, erretiro egoerara pasatu eta erretiro pentsioa jasotzeko tramite arruntak egiteko. Estatuko funtzionario zibilen araubide bereziko funtzionarioek kontuan hartu behar dute eskaera gutxien dela hiru hilabete lehenago egin behar dutela eta, 64 urterekin hartzen den erretiro bereziaren kasuan, gutxienez sei hilabete lehenago.

**Zortzigarrena.- Zerbitzu harremana behin betiko amaitzea**

Neurri honetaz baliatzen diren irakasle-ikertzaileen zerbitzu harremana amaituko da interesatuak adierazten duen datan, edo, bestela, administrazioak bere erabakian proposatzen duenean (ikus aurreko atala).

**Bederatzigarrena.- Bateraezintasunak**

1.- Borondatezko erretiroagatik kalte ordaina jasotzeak berarekin dakar interesatuak konpromisoa hartzea ordaindutako beste jarduerarik ez egiteko UPV/EHUrekiko zerbitzu harremana amaitu

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

ondoren. Konpromisoa hautsi duela jakinez gero, kalte ordaina itzultzeko eskatu ahal izango dio UPV/EHUk.

**Hamargarrena.- Aurrekontua egotea**

Eskari guztiak onartzeko beharrezkoa izango da aurrekontuan horretarako dirua egotea.

2.- Aurrekontu nahikorik ez balego eskari guztiak onartzeko, 2015eko uztailaren 24ko Akordioaren Jarraipen Batzordeak erabakitzen dituen irizpideak aplikatuko dira.

**Hamaikagarrena.- Errekurtsoak.**

Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion Bilboko epaitegian hilabete biko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Leioa, 2016ko urriaren 25a

IRAKASLEEN ATALA SECCIÓN DE PROFESORADO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Sin.: Xabier Etxaniz Erle
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 4195/2016 Erabaki Zk.

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**RESOLUCIÓN, DE 25 DE OCTUBRE DE 2016, DEL VICERRECTOR DEL PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR, DE LA UPV/EHU, POR LA QUE SE ESTABLECE EL PROCEDIMIENTO PARA SOLICITAR EL PASE A LA JUBILACIÓN VOLUNTARIA INCENTIVADA DEL PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR FUNCIONARIO DE CARRERA Y LABORAL FIJO QUE DURANTE EL AÑO 2017 TENGA ENTRE 60 Y 64 AÑOS DE EDAD**

Con fecha 27 de noviembre de 2015 se procedió a firmar entre la Administración universitaria y la representación sindical de la UPV/EHU, en el seno de una Comisión Técnica constituida al efecto, un acuerdo relativo al tratamiento de la jubilación en la UPV/EHU y de otras medidas relacionadas con el tránsito a dicha situación.

Dicho acuerdo fue ratificado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU en su sesión celebrada el 17 de diciembre de 2015.

En el punto sexto del acuerdo de 27 de noviembre de 2015 se contempla la jubilación voluntaria incentivada del personal docente e investigador funcionario y laboral fijo que tenga entre 60 y 64 años de edad y, en función de la misma, dará lugar al abono de un determinado número de mensualidades en concepto de indemnización por pasar a la situación de jubilación.

Por ello, se hace preciso realizar una convocatoria que garantice la máxima publicidad y alcance de la medida contemplada en dicho acuerdo, resultando igualmente necesario establecer el procedimiento que regule las condiciones, requisitos y plazos para hacer efectiva la materialización de dicho acuerdo.

En virtud de las competencias delegadas por la Resolución de 30 de enero de 2013 del Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y delegación de competencias (BOPV de 13 de febrero de 2013), procedo a dictar la Resolución por la que se regula el procedimiento para solicitar el pase a la situación de jubilación voluntaria del personal docente e investigador funcionario de carrera y laboral fijo que durante el año 2017 tenga entre 60 y 64 años de edad.

Nik, Jose Luis Martín González jaunak, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin.
Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2 zzk) izenpetua, 2013ko urtarrilaren 10eko erabakiaren bidez izenpea eskuordetuta.
Leioa, 2016 (e)ko urri (a)ren 25 a

Jose Luis Martín González, Secretario General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original.
Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de 10 de enero de 2013, la jefe de Negociado de Secretaría General (dot. 2).
Leioa, 25 de octubre de 2016

IDAZKARITZA NAGUSIA · SECRETARÍA GENERAL · UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**Primero.- Objeto.**

La presente resolución tiene por objeto proceder a realizar la convocatoria de la jubilación voluntaria incentivada, regulando los requisitos, condiciones y plazos de la misma.

**Segundo.- Ámbito personal**

Las medidas recogidas en la presente resolución resultarán de aplicación al personal docente e investigador funcionario de carrera y laboral fijo que tenga, en el año 2017, entre 60 y 64 años de edad.

**Tercero.- Requisitos**

El personal docente e investigador que decida acogerse a la jubilación voluntaria incentivada deberá reunir, a la fecha de efectos de la solicitud de jubilación los requisitos siguientes:

a) Ser funcionaria o funcionario de carrera de alguno de los cuerpos docentes universitarios, o laboral fijo de alguna de las categorías docentes,

b) ocupar, con carácter definitivo o en adscripción provisional plaza en la UPV/EHU,

c) encontrarse en situación administrativa de servicio activo o en otra que comporte reserva de plaza,

d) Tener entre 60 y 64 años de edad,

e) No haber disfrutado de las reducciones del encargo docente previstas en el apartado 7º del Acuerdo de 24 de julio de 2015, de la Comisión Técnica para el tratamiento de la jubilación en la UPV/EHU y otras medidas relacionadas con el tránsito a dicha situación, sin perjuicio de lo previsto en la Disposición Transitoria primera del mismo.

f) Reunir las condiciones necesarias para solicitar la jubilación voluntaria por cumplir los requisitos establecidos por la legislación vigente de aplicación.

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**Cuarto.- Indemnización**

1.- El personal docente e investigador que se acoja a las medidas contempladas en la presente Resolución y haya prestado servicios en la UPV/EHU durante al menos los últimos diez años (en situación administrativa de servicio activo o en otra situación que comporte reserva de plaza) tendrá derecho a percibir una indemnización, en el momento de hacerse efectiva el pase a la situación de jubilación, con arreglo a la siguiente escala:

| Edad | Nº mensualidades |
|---|---|
| 60 años | 18 mensualidades |
| 61 años | 15 mensualidades |
| 62 años | 12 mensualidades |
| 63 años | 8 mensualidades |
| 64 años | 4 mensualidades |

2.- El personal docente e investigador que se acoja a las medidas contempladas en la presente Resolución y **no** haya prestado servicios en la UPV/EHU durante al menos los últimos diez años (en situación administrativa de servicio activo o en otra situación que comporte reserva de plaza) tendrá derecho a percibir una indemnización, en el momento de hacerse efectiva el pase a la situación de jubilación, con arreglo a la siguiente escala:

| Edad | Nº mensualidades |
|---|---|
| 60 años | 13 mensualidades |
| 61 años | 11 mensualidades |
| 62 años | 9 mensualidades |
| 63 años | 7 mensualidades |
| 64 años | 4 mensualidades |

IDAZKARITZA NAGUSIA · SECRETARÍA GENERAL · UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3.- La cuantía de la indemnización en ningún caso podrá sobrepasar la cantidad de 100.000 Euros.

4.- Para determinar el número de mensualidades que corresponden a la funcionaria o funcionario de carrera o laboral fijo, se atenderá a la edad que la misma o el mismo tenga a la fecha de la efectiva jubilación.

Sin embargo, en aquellos supuestos que la funcionaria o el funcionario o el laboral fijo haya solicitado la jubilación voluntaria con efectos de una fecha determinada y no sea posible proceder a la efectiva jubilación en dicha fecha, por los plazos de resolución de esta convocatoria y dado que los trámites deben iniciarse, en el caso de las funcionarias y funcionarios encuadrados en el Régimen Especial de Funcionarios Civiles del Estado, con tres meses de antelación o, incluso, por considerar la Administración que su jubilación en otra fecha se acomoda mejor a la estructura cuatrimestral de la docencia, cumpliendo mientras tanto la persona afectada un año más, se abonará la indemnización correspondiente a la edad que esta persona tenía a la fecha de jubilación solicitada.

5.- Se entenderá por mensualidad la doceava parte de la retribución bruta anual que corresponda por cualquier concepto en el momento de producirse el hecho causante, excluidos el complemento de cargo académico y los derivados de la participación en proyectos o impartición de másteres u otros conceptos.

6.- Determinación de la cuantía de las mensualidades en el caso de funcionarias y funcionarios docentes con plaza vinculada.

En este caso, para determinar la cuantía de la mensualidad, se excluirán en todo caso, las retribuciones establecidas en el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza- Servicio Vasco de Salud, que conforme a lo establecido en la base decimosexta del Concierto suscrito entre la UPV/EHU y Osakidetza (BOPV de 9 de enero de 2009) Osakidetza transfiere mensualmente a la UPV/EHU.

7.- El pago de la indemnización se hará efectivo en un único pago. En el caso de las funcionarias y funcionarios encuadrados en el Régimen General de la Seguridad Social y del personal laboral, será necesaria la presentación de la resolución del INSS donde se declare la jubilación y su fecha de efectos.

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Sin embargo, a petición de la persona interesada, la indemnización podrá efectuarse de forma fraccionada por mitades iguales, abonándose en tal caso la segunda de ellas en el ejercicio siguiente.

**Quinto.- Plazo de presentación de las solicitudes**

1.- El plazo de presentación de solicitudes será **desde el 25 de octubre hasta el 25 de noviembre de 2016.**

2.- Finalizado el plazo de presentación de solicitudes el personal docente e investigador que tome parte en la presente convocatoria asume el compromiso de no desistir a la petición realizada.

En el caso de que se incumpliera este compromiso, no se permitirá al personal afectado, participar en ninguna otra convocatoria de jubilaciones voluntarias incentivadas.

**Sexto.- Solicitudes.**

1.- Las solicitudes serán dirigidas al Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador y se formalizarán según modelo que se adjunta a la presente y deberán presentarse en los Registros Generales de la UPV/EHU que vienen relacionados en el anexo I del acuerdo de 16 de mayo de 2012, del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, que aprueba el reglamento de organización y funcionamiento del Registro General y creación del Registro Electrónico (BOPV, 18 de junio de 2012), y en la dirección de Internet: www.ehu.es/oficinas_registro.html, o por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 16.4 y Disposición Final Séptima de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas,

2.- Son Registros Generales de la UPV/EHU los situados en el Rectorado de la Universidad en el Campus de Leioa, en Larrako Etxea de Bilbao, así como en las sedes del Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa: Edificio Ignacio Barriola, Plaza de Elhuyar, 1 (San Sebastián) y en la sede del Vicerrectorado de Campus de Alava: C/. Comandante Izarduy, 2 (Vitoria-Gasteiz).

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL eman ta zabal zazu UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3.- El horario de apertura de los Registros Generales ubicados en los Campus de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, será de lunes a jueves de 9 a 13 horas, en horario de mañana, y de 15,00 a 16,30 horas en horario de tarde. Los viernes y durante la jornada continua de verano y turnos de Semana Santa y Navidad el horario será de 9 a 13 horas.

4.- Las personas interesadas que presenten su instancia en las oficinas de Correos, deberán hacerlo en la forma que establece el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre, que aprueba el Reglamento por el que se regula la prestación de los servicios postales, que establece lo siguiente:

*"Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.*

*Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.*

*Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en su normativa de desarrollo."*

**Séptimo.- Resolución de las solicitudes**

1.- Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, desde el Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador se dictará resolución con la relación de las solicitudes aceptadas y/o rechazadas, poniendo en conocimiento de las personas interesadas la decisión adoptada.

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL
eman ta zabal zazu
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

En dicha resolución se pondrá de manifiesto también la fecha de jubilación. Esa fecha será la solicitada por la persona interesada salvo que razones relacionadas con la estructura cuatrimestral de la docencia o los plazos de resolución de esta convocatoria aconsejen a la Administración determinar una fecha diferente.

2.- El personal docente e investigador cuya petición haya sido aceptada deberá tramitar, la documentación correspondiente al objeto de seguir el trámite ordinario para el pase a la situación de jubilado y reconocimiento de la pensión, debiendo tenerse en cuenta que dicha petición, en el caso de las funcionarias y funcionarios encuadrados en el Régimen Especial de Funcionarios Civiles del Estado, debe realizarse con, al menos, tres meses de antelación.

**Octavo.- Cese efectivo de la relación de servicio**

1.- La finalización o cese efectivo de la relación de servicio del personal docente e investigador que se acoja a esta medida se producirá conforme a la fecha en que la persona interesada lo haga constar expresamente o, en su caso, la propuesta en la resolución citada en el apartado anterior.

**Noveno.- Incompatibilidades**

1.- El abono de la indemnización por jubilación voluntaria supone el compromiso y la aceptación por parte de la persona interesada de no desempeñar ninguna otra actividad retribuida tras el cese efectivo de sus funciones en la UPV/EHU. En el supuesto de que se tuviera conocimiento de algún incumplimiento del citado compromiso la UPV/EHU solicitará la devolución de dicha indemnización.

**Décimo.- Disponibilidad presupuestaria**

La aceptación de la totalidad de las peticiones que se produzcan estará condicionada a las disponibilidades presupuestarias existentes.

2.- Si dichas disponibilidades presupuestarias no fueran suficientes para atender al conjunto de peticiones, los criterios de aplicación serán acordados en el seno de la Comisión de Seguimiento del acuerdo de 24 de julio de 2015 de la Comisión Técnica para el tratamiento de la jubilación y otras medidas relacionadas con el tránsito a dicha situación.

IDAZKARITZA NAGUSIA · SECRETARÍA GENERAL · UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**Undécimo.- Recursos**

Contra la presente resolución cabe recurso potestativo de reposición en el plazo de 1 mes ante el Vicerrector de Personal Docente e Investigador, o directamente recurso contencioso administrativo ante el correspondiente Juzgado de Bilbao en el plazo de 2 meses a contar del día siguiente al de su publicación.

En Leioa, a 25 de octubre de 2016.

IRAKASLEEN ATALA SECCIÓN DE PROFESORADO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Fdo.: Xabier Etxaniz Erle
VICERRECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 4195/2016 Erabaki Zk.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — eman ta zabal zazu

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# BORONDATEZKO JUBILAZIOA ESKATZEKO ESKARIA

IZENA:________________________________________________

LEHENENGO ABIZENA:________________________________________

BIGARREN ABIZENA:_________________________________________

IRAKASLE MOTA:__________________________________________

SAILA:________________________________________________

_____________________________________________________

FAKULTATEA:____________________________________________

_____________________________________________________

INTERESDUNAREN ADINA JUBILAZIOAREN EGUNEAN: ______ URTE

Kotizazio Erregimena: ☐Erregimen Orokorra

☐ Klase Pasiboetako Erregimen Berezia

**Markatu dagokion hileko saria**:

| | |
|---|---|
| **60 URTE** | **18 HILEKO SARIA** ☐ |
| **61 URTE** | **15 HILEKO SARIA** ☐ |
| **62 URTE** | **12 HILEKO SARIA** ☐ |
| **63 URTE** | **8 HILEKO SARIA** ☐ |
| **64 URTE** | **4 HILEKO SARIA** ☐ |

**HAUXE ESKATZEN DU:**

2017ko ………………………(a)ren………..n jubilazioa hartzea.

**Sntua:**________________________

2016ko ……………………………..….aren ………..(e)an

**IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDE JAUNA**

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — eman ta zabal zazu
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# SOLICITUD DE JUBILACIÓN VOLUNTARIA

NOMBRE: ____________________________________________

1º APELLIDO: ________________________________________

2º APELLIDO: ________________________________________

CATEGORIA: _________________________________________

DEPARTAMENTO: ______________________________________

____________________________________________________

FACULTAD: ___________________________________________

____________________________________________________

EDAD EN EL MOMENTO DE LA JUBILACIÓN: ______ AÑOS

Régimen de Cotización: ☐Régimen General

☐ Régimen Especial de Clases Pasivas

**Marcar el nº de mensualidades que corresponda**

| | | |
|---|---|---|
| **60 AÑOS** | **18 MENSUALIDADES** | ☐ |
| **61 AÑOS** | **15 MENSUALIDADES** | ☐ |
| **62 AÑOS** | **12 MENSUALIDADES** | ☐ |
| **63 AÑOS** | **8 MENSUALIDADES** | ☐ |
| **64 AÑOS** | **4 MENSUALIDADES** | ☐ |

**SOLICITA:**

**la jubilación voluntaria para el día……… de ……………. de 2017**

**Firmado**

**En Leioa, a …….. de ………………………. de 2016**

**SR. VICERRECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR**